

**Ebazpena: R 18/2022**

**Espedientea: 78/2021**

Gasteizen, 2022ko maiatzaren 6an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landin eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

## **ERABAKIA**

EFZ zergapekoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean GFA) eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean ZAEA) aurka aurkeztutako gatazkari buruz. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 78/2021 espediente-zenbakiarekin, eta haren helburua da zergapekoaren 2019ko PFEZaren ordainarazpen-eskumena zehaztea.

## **I. AURREKARIAK**

1.- EFZ 2018an kontratatu zuen Nafarroako Unibertsitateak, Gipuzkoako campusean zerbitzuak emateko, eta bertan jarraitu zuen 2019an.

**2.-** EFZ jauna Gipuzkoan bizi izan zen 2019an, eta A Ikastetxe Nagusian ematen zituen gauak.

**3.-** EFZ jauna lurralde erkideko bizilekutik lekualdatu zenean, ez zion aurkeztu ZAEARI helbidea aldatzeko 030 eredu.

**4.-** EFZ jaunak ez du PFEZaren aitorpenik aurkeztu GFAREN aurrean, behartuta ez zegoelako.

**5.-** ZAEAREN Gaztela eta Leongo Ordezkaritza Bereziak behin-behineko likidazioa egin dio, ZAEARI PFEZAREN aitorpena ez aurkezteagatik, eta dagokion zehapena ezarri dio.

Zergadunari ez zaio aurrez aurreko jakinarazpenik egin.

**6.-** Hasierako alegazioen izapidea eman zaie bi administrazioei, eta, espedientea agerian jarri ondoren, azken alegazioena interesdun guztiei.

**7.-** ZAEAK alegatu du ez dela egokia gatazka negatiboa izapidetzea, administrazio bakar batek ere bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean bakarrik baitagokio.

**8.-** GFAK argudiatu du zergapekoak Gipuzkoan duela bizilekua, eta, beraz, berari dagokiola haren gaineko ordainarazpen-eskumena; hori dela-eta, ZAEAREN likidazioaren erabateko deuseztasuna deklaratzeko eskatzen du, eskumenik ez duelako.

9.- EFZ jaunak, azken alegazioen izapidean, zehapenaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa ukatzen duen ZAEAREN jakinarazpena sartu du.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Ekonomia Ituna onartzen duen 12/2002 Legearen 66.Bat c) artikulua xedatzen duenez, Arbitraje Batzordearen eskumena da *“zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea”*.

2.- Gatazka negatiboari buruz.

Arbitraje Batzordeak 8/2022 Ebazpena eman berri du, eta, horren arabera, bi administrazioek zergapekoaren gaineko eskumena dutela uste dutenean ere sor daitezke gatazka negatiboak.

Jarraian, Arbitraje Batzordea doktrina hori finkatzera daraman argudio juridikoa jasotzen da:

“1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren (aurrerantzean, EIABA) 13.1 artikulua gatazka positiboak arautzen ditu, eta xedatzen duenez, gatazka horiek dira administrazio batek planteatzen dituenak, dela bere burua

eskumenduntzat jotzen duelako eta bestea bere eskumena urratzen ari dela ulertzen duelako (kasu horretan, inhibizio-errekerimendua egin beharko da aldez aurretik), dela bere burua eskumenik gabekotzat jotzen duelako eta besteak bere eskumena bere gain hartu beharko lukeela ulertzen duelako (kasu horretan, eskumenik ezaren deklarazioa egin beharko da aldez aurretik).

EIABaren 13.3 artikulua gatazka negatiboa arautzen du, eta, xedatzen duenez, gatazka hori da zergapeko batek aurkezten duena. EIABaren hitzez hitzeko idazketak planteamendu hori egiteko aukera ematen du, administrazio bakar batek ere bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean. Kasu horretan, aukera ematen du planteamendu negatiboa egiteko, gatazka positiboa aurkezteko epea (hilabete bat) administrazio bakar batek ere horrelakorik sustatu gabe amaitu eta hilabete epean. Hala ere, gatazka positiboa planteatzeko beharrezkoa da aldez aurretik administrazio batek eskumenik ez duela deklaratzeari, bestearen alde, eta azken horrek ez onartzea, berariaz edo isilbidez (hilabete igaro delako); beraz, badirudi ezin izango litzatekeela gatazka negatiborik sortu aldez aurretik eskumenik eza deklaratu ezean.

Hitzez hitzeko interpretazio hori bateraezina da interpretazio finalista batekin; izan ere, interpretazio horren bidez saihestu nahi da, dagozkion prozedura-bide guztiak erabiliz, administrazioen justifikaziorik gabeko jarduketarik ezak, beren eskumenik ezean eta, aldi berean, kontrako alderdiaren eskumenean sustatutakoak, zergapekoari babes judizial eraginkorrerako eskubidea kentzea (Auzitegi Gorenaren egoitzan), alde batetik, Arbitraje Batzordeak eskumena zehazteko eskumen eskusiboa eta baztertzaila duela kontuan hartuta, eta, bestetik, administrazio-bidera

jotzeko obligazioa, kasu honetan eskumen-gatazka bat sustatuz, administrazioarekiko auzietarako errekurtsua jartzeko.

Horrela, posible da gatazka negatibo bat planteatzea bi administrazioek beren eskumena ukatzeko likidazio-akordio soil batekin, nahiz eta batek ere ez duen adierazi eskumenik ez duela, bestearen alde.

Era berean, posible da gatazka negatibo bat planteatzea bi administrazioek beren burua eskuduntzat jotzen dutenean eta, normalean, biek zergapekoaren aurrean jarduten dutenean, baina batek ere ez duenean gatazka positiborik sustatzen.

Kasu honetan, ZAEAREN likidazio bat dago, eta, nahiz eta GFAREN aurretiazko berariazko antzeko egintzarik ez egon, —eta hori logikoa da foru-araudiaren arabera aitortpena egiteko betebeharra izateko gutxieneko errenta-mugara iristen ez den subjektua delako—, badago berariazko eskumen-adierazpen bat GFAK egindako alegazioetan.

Horregatik guztiagatik, EFZK planteatutako gatazka negatiboa onartu behar da.

### **3.- Zergapekoaren helbidea.**

Honako hauek dira espedientean zergapekoaren helbideari buruz dauden frogak: zergapekoaren lan-kontratua, zeinaren arabera Nafarroako Unibertsitatearen Gipuzkoako campusean lan egiten baitu; lan-bizitza eta atxikipenen ziurtagiria, aurkeztutako kontratuarekin bat datozenak; Donostiako A Ikastetxe Nagusiko

gerentearen ziurtagiria, egiaztatzen duena zergapekoa bertan bizi izan dela, eta dagozkion errentak ordaindu dituela, “*pentsio osoa*” deritzonari dagozkionak.

Horrenbestez, egiaztatuta dago zergapekoak Gipuzkoan igarotzen zuela gaua gatazkari dagokion ekitaldian, eta, beraz, lurralde historiko horretan bizi zela.

Jurisprudentzia baketsua da, helbide fiskala gai faktikoa dela ezartzerakoan, eta, beraz, Ekonomia Itunaren 43. artikuluan xedatutako moduan helbide-aldaketa jakinarazteko betebeharra bete zein ez, zalantzarik gabe egiaztatu denez zergapekoa Gipuzkoan bizi izan zela, GFak eskumena du zergapekoari 2019ko PFEZa ordainarazteko, eta ez da aplikagarria izango Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorraren 48.3 artikulua, hargatik eragotzi gabe helbide-aldaketa jakinarazteko betebeharra ez betetzeagatik ezar dakioken zehapena.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

## **ERABAKITZEN DU**

1.- Deklaratzea GFari dagokiola EFZri 2019ko PFEZa ordainarazteko eskumena.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta EFZri jakinaraztea.